

# Mendizale ia ehundunak

**S**ARRI hitzegiten genuen Euskal Herriko Gailurren Kata-  
logoari buruz, bere garrantziaz eta haraindiaz (euskal  
mendien zerrenda ofiziala izan eta Penintsulako mendi  
esanguratsuenak identifikatzeaz gain, eredu bihurtu zen Bur-  
gos, Cantabria eta La Rioja-ko zerrendetarako eta orain Soria  
eta aragoar probintzien diseinuetan lanegiten ari da). Askotan  
aipatu dugu ere bere egunerapen eta etengabeko zuzenketa-  
ren abentura zientifikoa. Baina, gaurko honetan, Ehun Men-  
dien Lehiaketari buruz hitzegin nahi dut, beronek sortu bait-  
zuen Katalogoa.

Lehiaketa 1949an egin zen ofiziala, Mendizale Ehundunen  
Senitartea sortzean, zeinaren bitartez Federakundean hoge-  
garren hamarkadaren hasieratik orduarte klubetan (batez ere,  
Bilboko Club Deportivoan) egiten ziren ehun mendiko lehiaketa  
desberdinak integratzen baitziren. Gaur egun, 3600 mendizale  
ehundun dago, kopurua urtero 80 finalistetan handitzen  
delarik. (Emakumezkoen partehartzea 15%koa da inguru.  
Gogoratu beharra dago historiaren hirugarren finalista, 1923  
urtean, emakumezko bat izan zela, Victori Pérez de Nanclares).

Erakundea ohorezkoa da soilik, baina jatorria du. Gure  
zaharrekin harremanetan jartzen gaitu, tribuaren aintzindari-  
kin. Jatorrietako idazkiak birpasatuz, uste dugu irudia oso

ondo ideiatu egon zela. Lehiaketa, finean, gure mendiei  
buruzko ezagumendu hobetza lortzeko laguntzen digun tres-  
na da eta, beraz, gure paisaiari, gure naturari, gure kulturari,  
gure herriei eta gure jendeari buruz ere.

Zer esanik ez, bakoitza bere airera joaten da mendira, eta  
batzutan lehiaketa, erronka eta baldintza propioak sortuz ere,  
baina Ehun Mendien Lehiaketaren araudiaren betekizunaren  
jokuan sartzeak mendia egiteko estilo, modu iraunkor eta  
metodikoan barneratzen gaitu, zeinak gure zaletasunaren eza-  
gumenduaren (egutegiak, aipamenak, mezuak, txartelak,  
mapak, datu-baseak, eta abar) kudeaketa-eskema berri bat  
ondorioztatu ahal baitu.

Euskal Federakundea ilusionaturik dago aurtengo Lehiaketa  
animatu behar dela eta, horretarako internazionalki "Mendia-  
ren Urtea" izendatu den 2002 urte honen ekintzen artean  
kokatuko duelarik. Senitartearen Idazkari Nagusia, Alberto  
Gonzalez Arregi, lehengo "Senide Nagusien" lerroa jarraituz  
(Antonio Ferrer, Santiago Laespada, J Antonio Urkizu eta, urte  
askotan, Juanito Salazar) dokumentazioaren egunerapenean  
eta hedapen-kanpainan lanegiten ari da, argitalpenen bitartez,  
EMFaren WEBaren bitartez eta Lurralde-Federakundeen eta  
kluben lanaren bitartez. Azken hauek dira, finean, ekimen  
hauei bizigira ematen dietenak.

---

# Montañeros casi centenarios

**S**OLEMOS hablar con frecuencia del Catálogo de Cimas  
de Euskal Herria, de su importancia y trascendencia  
(además de constituir el listado oficial de montes vas-  
cos y de identificar los montes más significativos de la  
Península, sirvió de modelo para los listados de Burgos,  
Cantabria y La Rioja y ahora se está trabajando en los dise-  
ños de Soria y las tres provincias aragonesas). También  
hemos comentado muchas veces la aventura científica de  
su actualización y corrección permanente. Pero hoy quiero  
hablar concretamente del Concurso de los Cien Montes, que  
es el que le dio origen.

El Concurso se hizo oficial en 1949, al crear la Hermandad  
de montañeros centenarios, con lo que se integraban en la  
Federación los diferentes concursos de cien montes que se  
estaban realizando en los clubs desde comienzos de los años  
veinte, en que se habían empezado a organizarse, sobre todo,  
en el Club Deportivo de Bilbao. Hoy en día hay un total de  
unos 3600 montañeros centenarios, aumentando anualmente  
la cifra en unos 80 finalistas. (La participación femenina ronda  
el 15%. Recordamos que el tercer finalista de la historia, allá  
por 1923, fue una mujer, Victori Pérez de Nanclares).

Es una institución exclusivamente honorífica pero con sole-  
ra, que nos pone en relación con nuestros mayores, con los  
precursores de la tribu. Repasando los escritos de los orige-

nes, pensamos que la figura estuvo muy bien ideada. El Con-  
curso es, en definitiva, un instrumento que nos ayuda a obte-  
ner un mejor conocimiento de nuestras montañas y, por  
ende, de nuestro paisaje, nuestra naturaleza, nuestra cultura,  
nuestros pueblos y nuestra gente.

Evidentemente cada cual va al monte a su aire, e incluso  
creándose sus propios concursos, retos y condiciones, pero  
entrar en el juego de la observancia del reglamento del Con-  
curso de Cien Montes nos introduce en un estilo, un modo de  
hacer montaña, constante y metódico, que puede implicar  
incluso todo un esquema de gestión del conocimiento de  
nuestra afición (calendarios, reseñas, partes, tarjetas, mapas,  
bases de datos, etc).

La Federación Vasca está ilusionada por animar este año el  
Concurso, encuadrándolo entre las actividades del año 2002,  
declarado internacionalmente como "Año de la Montaña". El  
Secretario General de la Hermandad, Alberto González Arregi,  
siguiendo la línea de los primeros "Hermanos Mayores":  
Antonio Ferrer, Santiago Laespada, J Antonio Urkizu y, duran-  
te muchos años, Juanito Salazar, está trabajando en la actuali-  
zación de la documentación y en la campaña de difusión a tra-  
vés de publicaciones, de la web de la EMF, y de la labor de  
las Territoriales y de los clubs, que son, en definitiva, los que  
dan vida a estas iniciativas.

Txomin Uriarte